

"Alferraren astea"

Entzun ondo abestia eta gero erantzun galderak:

Alferraren astea

Astelehena,
jai ondoren alferra,
ezer ez egiteko,
ez noa lanera... (4)

Asteartea,
euria goitik behera,
busti egingo gara (e)ta
ez goaz lanera...(4)

Ostirala,
haginetako mina,
aspirina hartuta
bagoaz ohera,
bagoaz ohera,... (4)



Larunbata,
egun erdiko lana,
egun erdiagatik,
ez goaz lanera...(4)

Asteazkena,
osaba ezkontzen da,
eta jai hartzen badu,
ez goaz lanera...(4)



Igandea, lantegiak itxita,
lan egin nahi baina, ezin
joan lanera, ezin joan
lanera...(4)

Osteguna,
amonaren eguna,
hori ospatzeko
ez goaz lanera...(4)



1. Lotu asteko eguna lanera ez joateko arrazoiarekin.

- | | | | |
|------------|--------------------------|--------------------------|-----------------------------|
| Astelehena | ☐ | ☐ | Osaba ezkontzen delako. |
| Asteartea | ☐ | ☐ | Egun erdia delako. |
| Asteazkena | ☐ | ☐ | Jai ondoren eguna delako. |
| Osteguna | ☐ | ☐ | Lantegiak itxita daudelako. |
| Ostirala | ☐ | ☐ | Euria ari delako. |
| Larunbata | ☐ | ☐ | Amonaren eguna delako. |
| Igandea | ☐ | ☐ | Haginetako mina duelako. |

2. Idatz itzazu asteko egunen izenak ordenaturik.

➤
.....

➤
.....

➤
.....

➤
.....

➤
.....

➤

.....

➤

.....